

## KANALAK

Kurtso hasieran gelaz-gela joango gara gure akademia aurkeztuz, bezeroak lortzeko. Gure asmoa horrela bezeroen gehiengo bat lortzea izango da, baina horrez gain beste hainbat modutan saiatuko gara bezeroak erakartzen:

### **MEET**

Ikasleek aukera izango dute saio presentzialak egin beharrean bideodeiak egiteko. Horrez gain, egungo pandemia dela eta, klase etorri ezin duten ikasleek ere izango dute aukera hau. Meet izango da erabiliko dugun plataforma, egokiena iruditzen baitzaigu gure beharretarako.

### **INSTAGRAM**

Instagrameko kontu bat sortuko dugu. Kontu honen helburua azken berriak kontatzeaz gain bezeroak erakartzea izango da. Horretarako, doako klaseak zozketatuko ditugu hilean behin, eta honekin gure akademia ikasle eta guraso gehiagok ezagutzea da gure nahia.

### **FACEBOOK**

Facebookeko kontu bat sortuko dugu, baina kontu honen helburua ezberdina izango da. Jakin badakigu Facebookeko erabiltzailearen profila ezberdina izan ohi dela (pertsona helduagoak ibiltzen baitira aplikazio honetan). Horregatik, bertan egingo ditugun publikazioak ikasleen gurasoei zuzenduta joango dira.

